

ORDAINKETAK BABESTEKO IBERDROLA ASEGURUAREN BALDINTZAK

1.- ASEGURUARI ATXIKI BAINO LEHENAGOKO INFORMAZIOA

ASEGURATZAILEEI BURUZKO INFORMAZIOA

Produktu aseguratzaile hau **METLIFE EUROPE d.a.c., Espainiako Sukurtsalak eta METLIFE EUROPE INSURANCE d.a.c., Espainiako Sukurtsalak** harpidetzen dute; hau da bien helbidea: Avenida de los Toreros 3, Madrid (PK: 28028). Bi erakunde horiei MetLife esango zaie, elkarrekin.

METLIFE EUROPE d.a.c., Espainiako Sukurtsala (aurrerantzean METLIFE EUROPE), IFZ hau duena: W-0072536-F; Aseguruaren Zuzendaritza Nagusian E-0208 administrazio-klabeaz izena emana.

METLIFE EUROPE estaldura hauek harpidetzen ditu: heriotza, erabateko ezintasun iraunkorra, aldi baterako ezintasuna eta ospitaleratzea.

METLIFE EUROPE Irlandan legez eraturako eta ezarritako sozietatea da, helbide soziala "20 On Hatch", Lower Hatch Street, Dublin 2 (Irlanda) duena, Irlandako Merkataritza Erregistroan 415123 zenbakiaz izena emana eta bere nazionalitateko IE-6435123T identifikazio fiskaleko zenbakiduna.

METLIFE EUROPE INSURANCE d.a.c., Espainiako Sukurtsala (aurrerantzean METLIFE EUROPE INSURANCE), IFZ hau duena: W-0072537-D; Aseguruaren Zuzendaritza Nagusian E-0209 administrazio-klabeaz izena emana.

METLIFE EUROPE INSURANCE langabezia-estaldura harpidetzen du.

METLIFE EUROPE INSURANCE Irlandan legez eraturako eta ezarritako sozietatea da, helbide soziala "20 On Hatch", Lower Hatch Street, Dublin 2 (Irlanda) duena, Irlandako Merkataritza Erregistroan 472359 zenbakiaz izena emana eta bere nazionalitateko IE-9703775K identifikazio fiskaleko zenbakiduna.

METLIFE EUROPE eta **METLIFE EUROPE INSURANCE** en kontrola Irlandako Banku Zentralari dagokio (Central Bank of Ireland, helbidea: North Wall Quay, Spencer Dock, PO Box 11517, Dublin 1 -Irlanda-).

MetLife-ren webgunean zure finantza-egoerari eta kaudimenari buruzko txostena kontsultatu ahal izango duzu (www.metlife.es).

BITARTEKARIARI BURUZKO INFORMAZIOA

Iberdrola Servicios Energéticos S.A.U.-k (aurrerantzean, BITARTEKARIA) MetLife-ren Agentzia Esklusibo gisa jarduten du; IFK: A-85957520; helbidea: Tomás Redondo kalea 1, PK 28033; Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren erregistroetan inskribatuta dago (www.dgsfp.mineco.es) E0208A85957520 inskripzio-gakoarekin.

Bitartekariak emandako aholkularitzaren helburua da MetLife erakundearen aseguru-produktu bat kontratatzea edo haren bidez kontratatutako aseguru baten gaineko ezbehar bat kudeatzen laguntzea.

Bitartekaria ez dago behartuta merkatuan eskaintzen diren beste aseguru-produktu batzuei buruzko azterketa objektibo bat egitera, eta bezeroei hobekien egokitzen zaiela uste duena gomendatu ahal izango du, haien inguruabarren arabera.

ERREKLAMAZIO-INSTANTZIAK

Kexa edo erreklamazioaren bat aurkeztu nahizanez gero, MetLife-ko Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuan aurkeztu ahal izango duzu, bere Erregelamendua haren bulegoetan edo www.metlife.es webgunean eskura izanik. Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuekin harremanetan jartzeko, idatzizko komunikazio bat bidali beharko duzu, bai postaz erakundearen helbidera, bai posta elektronikoz (servicioclientes.spain@metlife.es).

Gatazka edo desadostasunik izanez gero, erreklamazioa aurkeztu eta bi hilabete igaro direla egiaztatzen bada, MetLife Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak ebazpenik eman gabe, edo horrekin ados ez egotekotan, erreklamazio-prozedura administratiboa hasi ahal izango da Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren Erreklamazio Zerbitzuaren aurrean (Paseo de la Castellana 44, PK 28046 - Madrid); posta elektronikoa: reclamaciones.seguros@mineco.es, Bulego Birtuala: oficinavirtual.dgsfp@mineco.es.

Dena den, izaera orokorrekin, eskumeneko epaileek eta auzitegiek ebaziko dituzte auziak.

DATU PERTSONALEN BABESA

Zure datuen tratamenduari dagokionez, Bitartekariak jakinarazten dizu **METLIFE EUROPE** eta **METLIFE EUROPE INSURANCE** aseguru-enpresak eta **IBERDROLA CLIENTES, S.A.U.**, harpidetza kolektiboko aseguruaren sustatzailea den aldetik, ordainketak babesteko aseguruari buruzko datuak tratatzeko arduradunak direla. Bitartekariak zure datuen tratamendua arduradun gisa jardungo du.

Datuen babeserako gure ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke, bai MetLife-ren helbidera idatzita eta erreferentzian "Delegado de Protección de Datos" adierazita, bai datospersonales@metlife.es helbidera mezuz elektronikoki bat idatzita.

Zertarako erabiliiko ditugu zure datu pertsonalak?

Tratamendua automatizatua izango da, eta xede hauetarako erabiliko dira datuak:

- Eskararen arriskua baloratzeko.
- Kontratu-harremana bete eta garatzeko.
- Iruzurra prebenitu, hauteman edo esesteko ekintzak gauzatzeko.
- Datuaren titularraren eskubideak betetzeko.

Zein da tratamendurako legitimazioa?

- Kontratua exekutatzeko.

Nork jasoko ditu datuak?

Arduradunek tratatuko dituzte datuak, zurekin kontratatutako prestazioak irauten duen bitartean.

Baliteke zure datuak ematea aseguruaren bitartekariari, Iberdrola Servicios Energéticos SAUri alegia, gorago adierazitako xedeetarako. Horrez gain, aseguratutako sektorearekin lankidetzan jarduten duten erakundeei ere laga dakizkieke, estatistikak egiteko eta iruzurrari aurre egiteko, baita beste pertsona eta erakunde batzuei ere, arriskuak aztertzeko, istripuak ikertzeko, ko-aseguru kontuetarako edo berriz aseguratzeko.

Noiz arte gordeko dira datuak?

Kontratututako prestazioak irauten duen bitartean gordeko ditugu zure datu pertsonalak, dagozkien blokeo-betebeharrak eragotzi gabe, indarrean dagoen araudiarekin bat; epaile eta auzitegien esku baino ez dira egongo. Datuen blokeo-epaia igaro ondoren, datu pertsonalak ezabatu egingo ditugu.

Zein eskubide dituzu?

METLIFEra idatz dezakezu (Avda. de los Toreros, 3 28008 - Madrid), baita datospersonales@metlife.es helbidera ere, erreferentzian "Datuen Babesa" adierazita eta nortasun-agiriaren kopia batekin, edozein unetan eta guztiz doan, honako eskubide hauek erabiltzeko:

- Datu pertsonalak tratatzeko eman duzun baimena baliogabetzea. Horri dagokionez, adierazi beharra dago datu pertsonalak tratatzeko emandako baimena baliogabetuz gero, alderdien arteko kontratu-harremana eten egingo dela.
- Emandako gainerako baimenak baliogabetzea.
- Datu pertsonalak tratatu diren edo ez jakitea.
- Datu pertsonalak atzitzea.
- Zehatzak ez diren edo osatu gabe dauden datuak zuzentzea.
- Datuak ezabatzeko eskatzea, besteak beste datuak bildu ziren xederako beharrezkoak ez direnean.
- Datuen tratamendua mugatzea datuak babesteari buruzko araudian aurreikusten diren baldintzetakoren bat betetzen denean.
- Zenbait egoeratan, datuen tratamenduari dagozkion arrazoiak direla eta, aukera izango duzu datuak tratatzeari uko egiteko.
- Datuen eramangarritasuna eskatzea.
- Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean (Calle de Jorge Juan, 6, 28001 Madrid helbidea) erreklamazio bat jartzea, uste baduzu **METLIFE** enpresak urratu egin dituela datuen babesari buruzko legediak aitortzen dizkizun eskubideak.

Hori eragotzi gabe, interesduna edozein unetan harremanetan jarri ahalko da **METLIFE** enpresako datuen babeserako ordezkariarekin, datospersonales@metlife.es helbidean.

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi gure Pribatutasun Politika www.metlife.es helbidean, edo eskatu 900 201 040 telefonoan, 9:00etatik 21:00etara, astelehenetik ostiralera, eta zuk adierazitako helbidera bidaliko dizugu.

ASEGURU-KONTRATUARI APLIKAGARRIA DEN LEGERIA

Poliza hau Aseguru-kontratuei buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legeak, Erakunde aseguratzaile eta berraseguratzailen ordenazio, ikuskapen eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legeak, Aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren 1060/2015 Errege Dekretuak eta kontratuaren Baldintza Orokorretan, Berezietan eta Partikularretan hitzartutakoak eta etorkizunean indarrean dauden arauak ordeztu edo aldatzen dituzten legeak arautuko dute.

Halaber, kontsumitzaileei zuzenduriko finantza-zerbitzuen urrutiko merkaturatzeari buruzko uztailaren 11ko 22/2007 Legea aplikatuko da.

ATZERA EGITEKO ESKUBIDEA

Asegurudunak Aseguru Kontratu honetan atzera egiteko eskubidea gauzatu ahal izango du, 30 egun naturaleko epean, kontratu-dokumentazio hau jasotzen den unetik zenbatzen hasita. Atzera egiteko 900 225 235 telefono-zenbakira deitu beharko du.

2.- IBERDROLA ORDAINKETAK BABESTEKO ASEGURUAREN BALDINTZEN LABURPENA

IBERDROLA Ordainketak Babesteko Aseguruaren Baldintzen Laburpen honen helburua Iberdrolaren Hornidura Kontratuaren bezero titularra (aurrerantzean "Hartzailea" edo "Aseguruduna") **IBERDROLA CLIENTES SAU** (aurrerantzean "IBERDROLA") eta Erakunde Aseguratzaileen (aurrerantzean "METLIFE") artean sustatutako Poliza Kolektiboari atxikitzea da, ondoren zehaztuko diren baldintzak eta irismena duten estaldurez gozatu ahal izateko. Aipatutako polizak Aseguruaren Sustatzaileak eta **METLIFE**-k dauzkate, aseguruaren eskura. Poliza horiek **IBERDROLA**ren webgunean (www.iberdrola.es) kontsulta daitezke, bide honi jarraituta: Produktuak eta Zerbitzuak, Fakturazio eta Ordainketa Zerbitzuak, Ordainketa Babesa, Baldintzen fitxa.

Aseguruaren Harpidedun gisa eta, beti ere, Asegurudunen hobe beharrez, **IBERDROLA** Poliza Kolektiboaren baldintzak aldatzeko eskumena izango du, edo Entitate Aseguratzaileak aldatzeko, Asegurudunei behar bezala azalduta.

ASEGURUAREN SUSTATZAILEA

Aseguruaren polizaren sustatzailea **IBERDROLA CLIENTES SAU** izango da, A-95758389 IFK duena, helbide soziala Euskadi Enparantza 5, 48009 Bilbo (Bizkaia) eta helbide fiskala Tomás Redondo kalea, 1, 28033 Madril duena.

POLIZAREN ONURADUNA

IBERDROLA CLIENTES SAU estaldura guztietarako onuraduna izango da eta izaera ezeztagarria izango du.

Elektrizitate-horniduraren eta/edo gas naturalaren horniduraren Kontratuan kreditu bat sortzeko bideratuko du kalte-ordainaren zenbatekoa IBERDROLAK. Aseguruduna izango da hornidura horren titularrak, eta aseguruak hari eragingo dio. Heriotza-estalduretan, Asegurudunaren familia-kiderik etxean biziko ez balitz, onura hori jaso lezake, baina legezko oinordeko batek eta aipatu hornikuntzaren edo IBERDROLaren beste horniduraren baten gainean jasoko dute onura hori.

PRIMA ETA HAREN ORDAINKETA

Hartzaileak/Asegurudunak bere gain hartzen du prima ordaintzeko ardura. Kontratuaren Baldintza Partikularretan zehaztuko da zenbatekoa. Bere prezioa urterte eguneratuko da kontratu hau indarrean den urte bakoitzeko urtarillaren 1eko Kontsumoko Prezioen Indizeari (aurrerantzean KPI) dagokion aldakuntzaren arabera, aseguratutako kapitalen balio handitzeak barne. KPI hazkundera aplikatu baino lehenagoko azarotik azarorako epealdian pilatutako KPI orokorraren balio errealararen arabera kalkulatu da.

Hilabeteko, bihileko edo hiruhileko primaren ordainketa edo ordainketa indibidualaren bidez zehazten da aseguruak, Asegurudun bakoitzarentzat eta dagokion tarifaren arabera. Prima elektrizitatearen edota gasaren fakturaren barruan ordainduko da.

KONTRATUAREN IRAUPENA

Poliza honek emandako estaldurak, Aseguruduna Atxikitze Baldintzekin bat badator, aseguru atxikita daraman IBERDROLAekin hitzartutako elektrizitate edota gas naturalaren hornidura benetan ematen den egun berean indarrean sartuko dira, kontratua elektrizitate edota gas naturalaren hornidura baino beranduago kontratatzen bada salbu; kasu horretan Aseguru hau kontratatzen den unean sartuko dira indarrean.

Poliza kolektiboa indarrean dagoen bitartean egongo da indarrean (poliza kolektiboa ezereztu bada, Asegurudunak ordaindutako azken primari dagokion estaldura-epaia amaitzen den egun berean ezereztuko da banako Asegurudun bakoitzaren estaldura), prima ordainduta badago, beste edozein estaldurarako (heriotza edo ezintasun iraunkor eta absolutua) kalte-ordainik ordaindu ez bada, hornidura-kontratua ezereztu ez bada, eta Aldi Baterako Ezintasunaren estaldurarako, Asegurudunak poliza bakoitzerako ezarritako adinaren gehieneko muga gainditu ez badu. Egoki irizten dionean, bere atxikimendua balio gabetzeko baimena du Asegurudunak. Horretarako, Asegurudunak ohar bat idatziz bidaliko du, gutxienez, 30 egun lehenago.

KONTRATUA EBAZTEKO BALDINTZAK

Poliza Kolektiborako atxikimendua ebatzita geratuko da:

- Ezarritako epeetatik kanpo Prima ez ordaintzea (Aseguru-kontratuari buruzko Legearen 15. art.).
- Asegurudunaren deklarazioko susmoagatik edo zehaztasun ezagatik (Aseguru-kontratuaren Legeko 12. art.; 89. eta 90. art.).
- Asegurudunaren borondatez ebatzea, IBERDROLAri edo Erakunde Aseguratzaleei gutxienez 30 eguneko aurreabisuaz jakinarazita.
- Erakunde Aseguratzaleen borondatez ebatzea, Asegurudunari gutxienez 60 eguneko aurreabisuaz jakinarazita.

EZBEHARRAK JAKINARAZTEA

Heriotzaren, Ezintasun Absolutu eta Iraunkorraren, Aldi baterako Ezintasunaren, Langabezia edo Ospitaleratze-kasuetan, METLIFEekin harremanetan jarri beharko du ahal bezain laster, mezu elektronikoko bidez (siniestros-sp@metlife.es), 09:00etatik 21:00etara, +34 900 201 040 doako telefono-zenbakira deituta, edo fax bidez (+34 91 725 32 93).

EZBEHARRAK KASUAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Ezbeharrak tramitatzeke, onuradunak edo legezko oinordekoek METLIFEri ezbeharraren aitortpen-galdetegia aurkeztu beharko diote, dokumentazio honekin lagunduta, egoki den estalduraren arabera:

a) Heriotza

- Heriotzaren Ziurtagiri Literalaren originala

b) Ezintasun Absolutua eta Iraunkorra

- Ezintasun iraunkorra maila absolutuan aitortzen duen Gizarte Segurantzaren Proposamenaren eta Ebazpenaren originala

c) Langabezia:

- Lan-kontratua
- Kaleratze-gutuna
- Langabezia-eskaera, lan-eskatzaile gisa agertuz, edo langabezia-prestazioa kobratzearen frogagarria

d) Aldi baterako ezintasuna:

- Hasierako baja-agiria
- Bajaren berrespen-agiriak
- Alta-agiria
- Aldi baterako ezintasuna eragin duen gaitzaren hasierako data (diagnostikoa) jasotzen duen medikuaren txostena
- Ezbeharraren eguneko lan-bizitzaren ziurtagiria)

e) Ospitaleratzea

- Ospitaleko altaren medikuaren txostena, diagnostikoa, jasotako tratamendua eta ospitaleratze- eta alta-data adieraziz (ospitalera sartu eta

bertatik ateratzeko orduak ere jasota)

- Ezbeharraren eguneko lan-bizitzaren ziurtagiria
- Istripuaren kasuan, lehen sorospeneren txostena edota diligenzia judicialak osorik

ZERGA-ERREGIMENA

Seguru honetako edozein estalduratik eratorritako kalte-ordainek une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera ordainduko dituzte zergak.

MONETA

Ordainketaren unean Espainian indarrean den monetan kalkulatu da moneta-zenbateko guztiak eta ordainduko dira sari eta prestazioak.

3.- ORDAINKETAK BABESTEKO AUTONOMOENTZAKO ASEGURUAREN 40.127 POLIZAREN BALDINTZA BEREZIEKIN LABURPENA

Atxikitze baldintzak:

Honako Estaldura hauen babesean asegurarriak dira, betekizun hauekin bat datozen pertsona fisikoak:

1. IBERDROLA emandako elektrizitate-hornikuntzarako eta/edo gas naturaleko hornikuntzarako kontratuaren titular gisa agertzea.
2. 18 urte baino gehiago eta 67 baino gutxiago izatea.
3. Autonomo gisa lanean jardutea.
4. Pertsona ezindua ez izatea eta ezintasun-espeditentia tramitatzen ez egotea, eskumena duten erakunde ofizialen artean.
5. Espainiako biztanlea izatea.

METLIFE EUROPEK emandako estaldurak:

- A. Gaixotasun ondoriozko heriotza. Polizaren Baldintza Partikularretan adierazitakoa izango da kalteordain bakarraren zenbatekoa.
- B. Istripuaren ondoriozko heriotza. Polizaren Baldintza Partikularretan adierazitakoa izango da kalteordain bakarraren zenbatekoa.
- C. Ezintasun Absolutua eta Iraunkorra: aseguru honen helbururako, Ezintasun Absolutuzat edo Iraunkortzat jotzen da istripu baten edo gaixotasunaren ondoriozko egoera fisiko itzulezina. Asegurudunaren borondatea aparte utzita sortutakoa izango da eta erabakigarria izango da haren erabateko ezgaitasuna sortzeko edozein profesio, lan, okupazio edo ordaindutako jardura egiteko. Polizaren Baldintza Partikularretan adierazitakoa izango da kalteordain bakarraren zenbatekoa.
- D. Aldi baterako ezintasuna: aldi baterako ezintasuntzat jotzen da istripu baten edo gaixotasunaren ondoriozko egoera fisiko itzulezina, asegurudunaren borondatea aparte utzita sortutakoa eta erabakigarria dena haren erabateko ezgaitasuna sortzeko edozein profesio, lan, okupazio edo ordaindutako jardura egiteko.

Ezintasunaren lehen egunean, honakoa ziurtatu beharko du Asegurudunak: autonomo gisa ordaindutako lanbide profesional bat duela, gaixotasun edo istripu baten ondorioz lana erabat utzi behar izan duela eta, ezbeharraren berri ematen den unean, ez dela berriro lanean hasteko gai.

Kalte-ordainketak ordainketa finko bat ekarriko du, 30 egun jarraituko ezintasun aldia frogatu denean. Ezintasun egoera hori segidako 210 eguneraino luzatzen bada, zenbateko bereko ordainketa gehigarria ordainduko da. Gehienez ere bi kalte-ordain ordainduko dira. Kontratuaren Baldintza Partikularretan ezarritakoa izango da kalte-ordain bakarraren zenbatekoa.

Gehienezko bi kalte-ordain ordainketa gainditu ondoren aldi baterako ezintasunagatik kalte-ordaina kobratzeko eskubidea berrabiarazteko, asegurudunak 12 hilabetez jarraian lan egin beharko du.

Ezbeharraren data gisa ulertuko da:

- Gaixotasun edo Istripuaren ondorioz gertatutako heriotzen estaldurararako: asegurudunaren heriotza-eguna.
- Ezintasun Absolutuaren eta Iraunkorraren estaldurararako: eskumena duen Erakunde Ofizialak Erabateko Ezintasun Absolutu eta Iraunkorreko egoeran egoteagatik Asegurudunari aitortutako efektu ekonomikoaren data.
- Aldi Baterako Ezintasunaren estaldurararako: asegurudunaren lehen ezintasun-eguna.

Zenbat hornikuntza-kontratu aseguratuta dauden kontuan hartu gabe, Asegurudun bakoitzeko kalte-ordainaren gehieneko muga bat zehazten da: kontratu bakoitzeko zehaztutako gehieneko zenbatekoa bider hamar.

Salbuespenak:

- Gaixotasun edo Istripuaren ondorioz gertatutako heriotza: bere buruaz beste egiten duen kasuan ez da Asegurudunaren heriotza estaliko Asegurudunaren taldean sartu ondorengo indarraldiaren lehen urtean. Xede horietarako, suizidiotzat jotzen da Asegurudunak jakitun eta bere borondatez eragindako heriotza. Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak babesten dituen arriskuak ez dira sartzen.
- Ezintasun Absolutua eta Iraunkorra: Gaixotasun edo Istripuaren ondorioz gertatutako heriotza estaldurararako jasotako salbuespenak.
- Aldi baterako Ezintasuna: Gaixotasun edo Istripuaren ondorioz gertatutako Heriotzen estalduretarako jasotako salbuespenez gain, bazter geratzen dira, berariaz, Haurdunaldiaren ondoriozko konplikazioak, mota guztietako erditzeak, haurdunaldia etetea eta horren guztiaren ondorioak, baita amatasun- eta aitatasun-atsedenerako baimenak ere.